

# BALEIKE

229. ZENBAKIA. EURO BAT  
2014ko OTSAILA

[www.baleike.com](http://www.baleike.com)

## MUNDUKO ZUMAIARRAK

**Ba al dakizue zenbat  
herrialdetako jendea bizi  
den Zumaian? Zergatik  
etorri diren? Zer pentsatzen  
duten gutaz? Galdera horiek  
eta gehiago erantzun  
dituzte munduko hainbat  
txokotatik etorritako  
zortzi herritarrek.**



Nolako zaporea du GURE HEZKUNTZAK?

Afektibitate  
Ikaskuntza  
Esperimentazio  
Motibazio  
Sormen

*...Zaporea*

**AURREMATRIKULA:** Otsailaren 3tik 14ra

**ATE IREKIAK**

Otsailak 1, larunbata

10:30ean gazteleraz

11:30ean euskaraz

Zaintza zerbitzua egongo da zuen seme-alabentzako



Maria eta Jose  
IKASTETXEA

943 86 04 62 - [www.mariatajose.com](http://www.mariatajose.com)

# BALEIKE 229

AZALA A. Rubio Aprea



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea: Agustín Zubimendi eta

Xabier Azkue.

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Ainara Lozano

Lasa, Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Jon

Urbiet, Izaskun Urbiet eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

azubimendi@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**TOKIKOM**

4

baleike +

## MUNDUKO ZUMAIARRAK

Zerrendako zortzi lagun hauek dira  
zenbaki berezi honetako protagonistak:

KALIN KAMENOV PETROV  
Bulgaria

KAROL BELAUSTEGI  
Amerikako Estatu Batuak

VALENTINA PALMERO CISNEROS  
Venezuela

CESAREO HERNÁNDEZ LÓPEZ  
Espainia

CHENSHI FU  
Txina

IRINA TCHITCHENKO  
Errusia

SAID SAADI  
Maroko

GIOVANNI ZANON  
Italia

29

agenda  
OTSAILA-MARTXOA

30

bertso xorta  
ESKUA GOIAN

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaia Udal



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



kutxa



kutxabank

# “ZER HOBETO HITZ EGITEN HASI ETA ELKAR EZAGUTZEA BAINO”



Zumaiarren jatorriari buruzko txostena.

TESTUA: IZASKUN URBIEITA  
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

“Herrian bizi diren atzerritarrek gauza asko utzi dituzte jatorrizko herrialdeetan: familia, lagunak, ohiturak... Atzerritar horiengan interesa jartzea da bertakoen zeregin handienetako bat”, aipatu du Karol Belaustegi estatubatuarrek. Eta horrela jarraitu du herritarrek atzerritarrek integratzeko zer egin behar duten galdetutakoan: “Atzerritarrek herrialde berrian beraien komunitatea sortzeko joera dute eta normala da. Kasu horretan zailagoa da beraiek ezagutaraztea, baina bakarrik dagoela ikusten baduzu, zure herrira bakarrik etorri dela baldin badakizu, zer hobeto harekin hitz egiten hasi eta elkar ezagutzea baino”. Hala ere, gaineratu du integrazio bidean, norberaren (etorkinaren, kasu honetan) prestutasunak asko laguntzen duela.

Iritzi berekoak dira Irina Tchitchenko eta Valentina Palmero, errusiarra eta venezuelarra, hurrenez hurren. “Norberaren kultura eta nahian dago atzerritarrek ezagutzeko gogo edo ez. Irakurri egin daiteke pertsona horren herrialdeaz, berarekin hitz egin, galdetu... Posible da, baita ere, ekintza batzuk bateratzea, baina zailagoa ikusten dut. Zumaian, esaterako, errusiar gutxi gaude, eta zaila da komunitate sendo bat sortzea”. Valentinen iritziz, “Nik uste ez dela bertakoen esku dagoen gai bat. Hemengo jendea den bezalakoa da, eta besteok gara kanpotik hona etorritakoak. Beraz, guk egin behar dugu hona ohitzeko ahalegina. Hori, ordea, bakoitzaren mentalitatearen arabera ere badago. Ezagutzen dut Venezuelako jendea, soilik Venezuelakoekin elkartzen direnak. Hala ere, joaten zaren herrialdean ongi hartua sentitzea ere garrantzitsua da, baina, nire ustez, integratzeko lana atzerritarrok egin behar dugu”.

Azken urteetan nabarmen egin du gora biztanleen kopuruak Zumaian. Ia 10.000 pertsona izatera iritsi gara, eta hazkunde horren arrazoietakoa bat migrazioa izan da. Gure artean 52 herrialdetako jendea bizi da, Aztikerrek egin duen ikerketaren arabera. Zenbaki hutsetan gelditu gabe, beraien bizipenak kontatu dizkigute gure artera bizitzera etorritako zortzi lagunek.

Giovanni Zanon italiarra praktikoagoa da beharbada, eta etorkinak integratzeko modurik egokiena elkarte gastronomikoetan sartzea dela pentsatzen du. “Hemengo kultura laburbiltzen duen tokietako bat iruditzen zait. Gertukoa da, jendea ezagutzen duzu, gauzak ulertzen dira, eta harremana sendotzen da. Horretaz gain, hemengo kiroletan parte hartzea ere interesgarria izan daiteke, esaterako. Bertakoek irakastea dago gakoa, eta interesa piztean albokoari”.

Kalin Kamenov bulgariarrak ere adibide zehatz batera jo du: “Euskara ikasteko kurtso gehiago jarriko nituzke, tartean intentsiboak. Ni astean 4 orduz bakarrik joaten nintzen eta ez da nahikoa, ahaztu egiten delako aste batetik bestera ikasitakoa. Horretaz gain, zaila egiten zait hizkuntzaren trikimailuak ulertzea, hau da, bulgariarrera itzulita egongo balitz euskararen gramatikaren azalpena, hobeto ulertuko nuke. Azkenean, gaztelania ere ez dut oso ongi kontrolatzen, eta ez ditut biak ulertzen”.

## Hurrengo geltokia: Zumaia

Bakoitzak arrazoi ezberdinak izan zituen etxetik irten eta bizimodua beste leku batean hasteko, baina guztiek, lehenago edo geroago, Zumaia hartu dute babesleku. Batzuk ia etorri berriak dira, beste batzuek urte dezente daramatzate gure artean, eta badira bakarren batzuk bizitza erdia hemen daramatenak. Hamaika arrazoi eta hamaika sentipen. Zergatik etorri ziren Euskal Herrira, eta, zehazki, Zumaia?

Hona etorri aurretik itsasoa inoiz ikusi gabe zegoen Cesareo Hernández, Avilako gizona. Bera da, 50-60ko hamarkadetan, batez ere, Espainiako hainbat probintzietatik Euskal

## TALDE ARGAZKIA

Zortzi izan dira erreportaje luze honetako protagonistak. Guztiak elkartzeko aukera aprobetxatu eta argazkia atera diegu. Bi falta dira, Valentina Palmero eta Said Saadi.



Herrira lanera etorri zen pertsonetako bat. “1958ko urriaren 26an etorri nintzen La Horcajadatik (Avila) Zumaia, 19 urterekin. Hasierako 3 urteetan, portuan egin nuen lan itsasontziak kargatzen eta deskargatzen. Ondorengo 2 urteetan, berriz, motorrak egiten zituzten fabrika batean, eta, azkenik, erretiroa hartu arte, butanoan”. Egun, 74 urte ditu, eta, beraz, bizitza osoa Zumaian egin duela esan daiteke. “Beharrak derrigortuta etorri nintzen hona. Han ez zegoen lan aukera askorik, eta zerbait hobearen bila irten nintzen. Lana topatu gabe etorri nintzen, abenturara, baina garai hartan erraz aurkitzen zen”. Kontatu duenez, urtebete lehenago bere arreba etorri zen lehengusu baten etxera. “Berak esan zigun hemen gauzak hobeto zeudela eta etortzeko. Hala, amarekin etorri nintzen. Aita hilda zegoen ordurako, eta beste anaia, berriz, Avilan geratu zen, ordurako ezkondata eta bi umerekin baitzegoen”. Trenean etorri ziren biak. Gaueko 00:00etan hartu, eta hurrengo eguneko 20:00ak aldera iritsi ziren Zumarragara. “Ia egun osoko bidaia! Geldialdi guztiak egiten zituen tren hark”.

Bizitza erdia gure artean daraman beste bat da Karol Belaustegi estatubatuarra. 1991. urtean etorri zen, 24 urte zituela. “Senarra, bergararra, Estatu Batuetan ezagutu nuen, eta ezkondu eta familia bat eratzeke leku hobea iruditu zitzaigun Euskal Herria. Lehendabiziko aldiz etorri nintzen, hemengo bizimoduak ni haurra nintzenekoa gogorarazi zidan. Gaur egun, ziur aski, ezin dira Ameriketako Estatu Batuetan haurrak eskolara bakarrik bidali, edo kalean jolasten ibili. Nik hori bizi izan zuen han, eta hau ere horrela iruditu zitzaidan”. Hala ere, aitortu du ez zela erraza izan hona etortzeko erabakia hartzea: “Nire ingurukoek ez zuten erabakia oso gustura hartu, iruditzen zitzaien nire bizitza galbidera neramala”.

90. hamarkadatik bizi da ere Giovanni Zanon italiarra. “1994-95 urteetan ezarri ginen Zumaian bizitzaren definitiboki, aurretik urte batzuetan hara eta hona ibili ondoren”. Italiar honen historia maitasun tantek arrazoitzen dute. “Jone, nire emaztea, Italian ezagutu nuen. Nire herriko bailara batean, sagarra ekoiztea dute bizibide, hori besterik ez. Hori horrela, ikasketak ordaintzeko, urtero joaten nintzen sagarrak biltzera 40 bat egunez hango familia etxe batera, eta 1989. urtean, Jone ezagutu nuen han”.

Irina Tchitchenko errusiarrak ere maitasun kontuengatik utzi zuen ere bere jaioterria. “Nire senarra zarautzitarra da, eta Errusiara joan zen lanera 1994. urtean. Bingo bat zabaltzera joan zen, eta ni bertan ezagutu ninduen, han lanean hasi nintzelako”. 1998an hona bizitzera etortzeko erabakia hartu zuten. “Hasieran Menorcara etorri ginen, nire gizona han ari zelako lanean. Denera, 3 urtez egon ginen han, baina ni aspertu egin nintzen irla batean bizitzen”. Hala, Penintsulara joateko ideiarekin, Kataluniara abiatu ziren. Bertan, lan egi-

teko aukera zabaldu zitzaion Irinari. Errusiarrak oporretara joaten hasi ziren, eta hotel batean lan egiten hasi zen. “Urtebetez egon ginen han, ni haurdun geratu eta senarrak Euskal Herrira bueltatu nahi izan zuen arte. Hala, Zarautzera etorri ginen aurrena, baina etxea erosterakoan, Zumaian aukera polita izan genuen, eta horrelaxe etorri ginen Zumaia, duela 10-11 urte”.

Kalin Kamenov bulgariarraren kasua ezberdina da. 2003. urtean etorri zen lehendabiziko aldiz herrira. Ondorengo 3 urteetan udaran bakarrik etortzen zen lanera. “Nire ama Zumaian bizi zen aurretik, eta berak bilatzen zidan udaran lan egiteko aukera”. Baina ordurako krisia hasita zegoen han,

prezioek asko egin zuten gora eta soldatek, aldiz, jaisteko bidea hartu zuten. “Momentu batean, sarrera baino gastu gehiago nituen, eta Zumaian geratzea erabaki nuen. Egia esan, ez nuen inoiz pentsatu hemen geratuko nintzenik”.

Inoiz Txinatik aterako zenik ere ez zuen pentsatu Chenshi Fu gazteak. Duela 6 urte etorri zen, 20 urterekin. “Hasieran Deban bizi izan nintzen 4 hilabetez, gero Mutrikun beste 4 hilabetez, eta, azkenik, Zumaia etorri nintzen. Egia esan, inoiz ez nuen pentsatu Europara etorriko nintzenik, ez ikastera, ezta lanera ere. Egun batean aitak galdetu zidan ea Europara etorriko nintzen lanera, eta baietz erantzun nion”. Ikastera ez zitzaion gustatzen, eta, hala, unibertsitatea utzi eta hona etortzeko prestatu zen. “Aitaren lagun bat bizi zen hemen, eta harengana etorri nintzen. Nire nagusia zen, baina orain Txinan dago berrira”.

Unibertsitateko ikasketak amaitzera etorri zen, aldiz, Kanariar Uharteetara lehendabizi, Valentina Palmero venezuelarra. “Nire aitona kanariarra da, eta han etxea dugu. Beraz, hori zen Espainiara etortzeko erreferentzia puntua. Hona arkitektura ikasketak amaitzera etorri nintzen 2002. urtean. Bertan, flamenkoa ezagutu nuen, eta erabat harrapatu ninduen. Horrela, dantza ikasketak egiten hasi nintzen. Geroago, sukaldari ikasketak egiteko aukera sortu zitzaidan, eta Zarautzera etorri nintzen, Aiala eskolara. Bertan 2 urtez ikasten egon eta Getariako Iribar jatetxean egin nituen praktikak. Han nire gizona ezagutu nuen, Oscar, eta Zumaia etorri nintzen”.

Said Saadi marokoarra bizimodu hobe baten bila irten zen etxetik, eta pixkanaka bere lekua egiten ari da orain dela 2 urtetik Zumaian. “Ferryan pasa nuen itsasoa Penintsulara etortzeko. Ceutan hartu nuen barkua eta Algecirasera iritsi nintzen. Aurreztu egin nuen dirua bidaia horrela egiteko. Pateren kontua oso gogorra da”.

Penintsula zapaldu zuenetik, 2010ean, Malaga, Alacant, Galizia eta Oleretan egon da bizitzen, Zumaia etorri aurretik.

### Jaioterriko bizimodua

Ez dira urte asko pasa Said Saadi hona etorri denetik, eta, be-

KALIN **KAMENOV PETROV**

# “EZ DAKIGU ZEHAZKI NONDIK GATOZEN, ETA HORRETAN ANTZA DUGU ZUEKIN”

**Jatorria:** Bulgaria.

**Adina:** 36 urte.

**Lanbidea:** Kalari tabernako sukaldean egiten du lan, laguntzaile.

**Familia:** Emaztea eta 2 seme-alaba.

**Erlijioa:** Kristaua da, baina ez praktikantea. Bulgarian kristautasuna da nagusi, baina musulmanak ere badaude. Garai batean turkiarren menpe egon zen herrialdea, eta orduan asko musulman bihurtu ziren. Ordutik, musulman batzuk geratzen dira.

**Hizkuntza:** Bulgariarra. Etxean bulgariarrez hitz egiten dute.

“Lanera hona etorri behar nintzenean, amak esan zidan gaztelania ikasteko. Liburu bat erosi nuen Bulgarian, eta horrela ikasi nuen oinarizkoa”. Euskara ikasten ere ibili da euskaltegian.

**Afizioak:** Interneten ibiltzea. Bulgarian halterofilia ere egiten zuen, baina hemen ez du denborarik.

Pomorie izeneko herri txiki batekoa da Kalin. Biztanle aldetik, Zumaia baino zertxobait handiagoa, kostaldean dago, baita ere, eta turistikoa da. Klima aldetik, udara oso beroa du, eta negua, aldiz, oso hotza (15-20 gradu zero azpitik).

“Bulgarian beti egon izan da krisia. Lehen komunista zen, eta orain demokrata da, baina gauzak ez dira asko aldatu. Esaten dute krisia amaitzen ari dela, baina ez dakit... 2006tik ez naiz bueltatu”.

Bulgariako unibertsitate batean, gainera, orain dela urtebete, euskal ikasketak jarri dira. “Historia galdua du Bulgariak. Ez dago idatzia, eta galdu egin da. Historia modernoa dakigu, besterik ez. Ez dakigu zehazki nondik gatozen, eta horretan antza dugu euskaldunekin. Hizkuntza ere nahasketa bat da. Antzinako bulgariarra, eslovakiarrarekin nahastuta...”.

## **Sukaldean egiten duzu lan. Bulgariako janaria eta hemengoa desberdinak dira?**

Beno, denetarik dago. Gauza batzuk ezberdinak dira, beste batzuk antzekoak, eta berdinak ere baditugu. Ezberdinena da, akaso, guk espezie gehiago erabiltzen dugula”. Hemendik eskerrak eman nahi dizkie nagusiei, Kalarikoei. “Oso gustura nago eta asko lagundu didate”.



WIKIPEDIA.ORG





**GARBIGAILUA**  
L73481  
• 8 kg  
• 1.400 rpm

**449€**



**KONBIA**  
583800CTXO  
• No frost  
• 200 X 60

**749€**

# AEG

## HILABETEA



**ZURIA**

**379€**

**INOX**

**439€**

**ONTZI**  
GARBIGAILUA  
F55022MO /  
F55022WO  
• 5 programa  
• A+



**ZARTAGIN SORTA  
OPARI**

**INDUKZIO PLAKA**  
HK633220FB  
• 3 indukzio gune

**449€**



**MUNTATZEA  
BARNE**



**ZARTAGIN SORTA  
OPARI**

**LABEA**  
BP3013021M  
• Pirolitiko  
• Barneko gidariak

**449€**



**TOSTADORA  
OPARI**



**LEHORGAILUA**  
T75370AH2  
• A+  
• 7 kg

**699€**



**ENDAÑETA ZUMAIA**  
**ELEKTROGAILUAK**

Erribera, 8 Tel. 943 861 694  
[www.endanetazumaia.com](http://www.endanetazumaia.com)

raz, jaioterriarekiko oroitzapenak ez dira hain urrunak oraindik. Are gehiago: tarteka hara oporretara joan izan da. Baina han zer egiten zuen galdetutakoan, hau izan da bere erantzuna: "Ikasi eta lana. Gaztetatik egin ditut bi gauzak, 15-16 urterekin hasita. Senide asko gara familian, eta lagundu egin behar genion elkarri, etxea eta familia aurrera ateratzeko. Eskolako oporretan lan egiten nuen, gero eskolara-ko liburuak erosteko aukera izateko. Aitak etxetik kanpo lan egiten zuen, baina amak ez. Normalean emakumea etxean geratzen zen lanean, etxeko gauzak egiten, bazkaria prestatzen... Hori orain aldatzen ari da, hala ere".

Cesareo Hernándezentzat 55 urte pasa dira geldialdi guztiak egiten zitu-  
en tren hark Zumarragaraino ekarri zuenetik, baina ordura arteko bizimodua presente du oraindik memorian. "Oinarritzko ikasketak egin eta lanean hasi nintzen, aurrena nekazaritzan eta gero aroztegi batean. Hain zuzen, hortik datorkit egurrezko gauzak egiteko afizioa". Aitortzen du ez zitzaioala askorik kostatu Euskal Herrira etortzeko erabakia, eta ez zuela gauza askorik laga han: "Anaia eta lagunak, jakina. Etxe zaharra ere utzi genuen, orain berriua daukadana, eta apenas gehiago. Garai hartan, aroztegi-  
an, hilean 15 pezeta irabazten nituen. Zumaia-  
ara etorri nintzenean,

aldiz, portuko lanean, orduko 5 pezeta. Egune-  
ko 50 pezeta, gutxi gorabehera. Hiru urte geroago joan nintzen lehenengo aldiz berriro ere gure herrira, bisitan. Ongi jantzita eta diru pixka batekin joan nintzen, eta hango festetan dena gastatu nuen [barrez]. Hala ere, soldata horrekin, aurrezteko ez ze-  
goen aukera askorik. Jateko eta janzteko aukera ematen zuen, baina etxe bat erostea denbora gehiagoko kon-  
tua izan zen. Hona etorri eta 15-20 bat urtera erosi genuen etxea".

Karol Belaustegik, aldiz, bere pasioa utzi zuen Estatu Batuetan: arkeo-  
logo lana. "Familia eta lagunez gain, Arkeologia ere utzi nuen. Hango basoen zerbitzuan egiten nuen lan. Askogustatzen zitzaidan lanbidea. Alde batetik, ikasi nuenean egiten nuelako

lan, eta bestetik, basoan egoten nintzelako; asko gustatzen zait mendia".

Giovanni Zanonek ere familia eta lagunez gain, pasio duen arlo bat utzi zuen albo batera: musika taldea. "Aitaren enpresa, lagunak, familia... Eta musika ere bai. Falta handia sumatu nuen, hasieran batik bat. Gainera, taldekideak oso lagunak ginen".

Irina Tchitchenkok bizimodu lasaia zeraman Errusian. "Ikasten eta lanean ari nintzen. Gurasoe-  
kin bizi nintzen eta

## KALIN KAMENOV: "Oraindik pentsatzen dut egunen batean Bulgariara bueltatu egingo naizela"



*Kalitatezko  
produktuak*

*Gipuzkoako  
Okelaren  
Ziurtagiria:  
GI-OKELA*

**ZUMAIA**  
Basadi auzategia, 4.  
Tel./Faxa: 943 860 621

**ZARAUZ**  
Salegi kalea, 14.  
Tel./Faxa: 943 890 215

# Juanjo Larrañaga harategia



**7 MARES**  
7 MARES izotzuak

**Arrain eta mariskoak**

**Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak**

Zuloaga plaza, 1  
tel. 943 862 309

**a3**

Alai auzategia 8  
20750 Zumala (Gipuzkoa)

Diseinu zerbitzuak  
tel.: 943 14 31 22

Kopiak eta materiala  
tel/Faxa: 943 14 31 20

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak  
a3zumala@terra.es

**LIBRURIA**

**AIZPURUA**

Aita-Mari auzategia, 17  
tel. 943 861 569

Egin zaitez  
**BALEIKEO**  
bazkide

**BALEIKEO**  
GERRAKO BOST  
DESAGERTU  
AURKITU ENTUZTE

**ALBERDI**  
dekorazioa

• Eskaiola  
• Pladur-a

696 726188  
943 143261

Egin zaitez  
**BALEIKEO**  
bazkide

**BALEIKEO**  
GERRAKO BOST  
DESAGERTU  
AURKITU ENTUZTE

**ALGORRI** TABERNA

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA

**ANA**  
ETXKO ZAPIAK

Ignacio Zuloaga enparantza  
tel. 943 861 157  
anastaeokozapiak@telefonica.net

**ILEA PAINDEGIA**

**D'Ana**

Kantauri plaza, 6. behea  
tel. 943 117 408

**Ardantzabide**  
ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com

Erakusketa: Hego kalea, 4-5  
Denda: Txomin Agirre, 4  
Tel.: 943 862 532

Aroztegia: Santiago, 40  
Tel.: 943 861 631

**ARGISUN**  
ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Giroitza
- Iturgintza
- Energi berriztogarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5  
tel. 943 861 995

www.argisun.com  
info@argisun.com

**OKINDEGIA**  
Arkupe

ZUMAIA

Naupaka 2 - tel. 943 561 501

**OGI-EDER**

**ARRUTI**  
Baltasar Etxabe 2/9  
Zumaia 943016429

**AUTOS ZUMAIA**

Urola plaza, 3-5  
tel. 943 861 485

**Bakun**  
ITZULPEN ETA ARGITALPEN  
ZERBITZUAK S.L.

San Isidro, 25  
20749 Arroa

tel./faxa 943 148 306  
bakun@euskalnet.net

**Basadi**  
albaitaritza

Ribaitaria  
Itzi Garmendia

Basadi, 7, behea - tel. 943 143 310  
www.basadi.net  
www.basadiilnivi.com

Golez: 11-13 / Arrabaldoz: 16-19:30 / Astetuen goizean eta larunbatean itala  
Lamiakidatzen: 605 728 737 Etxez ebeko zerbitzuak

**BASUSTA**  
ERRETEGIA

Patutia Etxezarreta, 25  
tel. 943 862 073

**Braky's**  
Okindegia Kaketegia

Izaga kalea, 2  
20750 Zumala (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 57 07 79  
Móvil: 649 967 289

VALENTINA **PALMERO CISNEROS**

## “ORAIN EZIN DA VENEZUELAN BIZI”

**Jatorria:** Caracas. Venezuela.

**Adina:** 33 urte.

**Lanbidea:** Enpresaria da, jostundegi bat du, amarekin batera.

**Ikasketak:** Arkitekturan lizentziatua da eta sukaldari ikasketak ditu. Sukaldaritzak ekarri zuen Euskal Herrira, hain zuzen. Caracasen ballet klasikoko karrera guztia ere egin zuen.

**Familia:** Zumaian, ama dauka. Tenerifen, berriz, aita. Anaia eta haren emaztea orain urtebete etorri dira Zumaia. Bestalde, gizona dauka (madrilدارra) eta alaba bat.

**Erlijioa:** Katolikoa, baina ez praktikantea.

**Hizkuntza:** Gaztelania. Alabak eskolan euskaraz egiten du, eta etxean beraien artean gaztelaniaz mintzatzen dira.

**Afizioak:** Dantza, batez ere flamenkoa, eta jatea.



“Gaur egungo Venezuela, nire ustez, kaos hutsa da. Bai, hori da hitza. Herrialdea tamalgarri dago, eta bertakoak ere horrelakoak dira. Baina, beno, berez, venezuelarren izaera oso irekia da”. Herrialdean korrupzio handia dagoela aipatu du, eta orokorrean egoera txarra dagoela. “Seguritatearik ez dago. Oso polita zen, paisaia zoragarriak zituen, baina dena puskatu dute: gezurrekin, korrupzioarekin... Ez du turismoak funtzionatzen, ez du ezerk funtzionatzen. Nire ustez, ezin da orain bertan bizi”.

Lehendakari aldaketak ere ez du konbentzitzen. “Malduro dago, baina niri ez zait gobernatzaile egokia iruditzen. Berdin zait zein pertsona dagoen gobernuan, gauza da mentalitatea aldatu egin behar dutela. Eta hori oso zaila da”.



familia eta lagunak utzi nituen han. Orduan lan asko zegoen, eta ez zen drama bat lana uztea. Gainera, nik ez nuen pentsatzen betirako joango nintzenik Errusiatik, eta ez nintzen sentitzen atzeritarra hona etorri nintzenean. Jaioterriaren falta sumatzen duen ala ez galdetutakoan, argi azaldu du: "Batzuetan bai, jakina. Oso ongi moldatu naiz honetara, baina normala da norberaren herriaz ere akordatzea. [Barrez] Gure esatera batek dio hiru pertsona elkartzen bagara, vodka botila bat behar dugula. Baina Donostian ere badugu errusiarren taberna bat, eta batzuetan joaten naiz Zumaian bizi den beste errusiar batekin. Baina ez naiz oso zalea. Niri pertsonak ezagutzea gustatzen zait, baina ez errusiarrek direlako bakarrik. Horregatik, ez naiz soilik errusiarretara mugatzen".

Chenshi Fuk unibertsitateko Ingles Filologiako ikasketak eta gurasoak utzi zituen han. "Alaba bakarra naiz, eta horrek pena ematen dit. Gurasoak triste daude ni hain urrun bizi naizelako". Han lagunak ere bazituen, eta gurasoez gain, familiako beste partaide batzuk ere bai. Hemen, aldiz, bakarrik dago. "Pozik nago, hala ere; egun batzuk tristeak izaten ditut, baina normala da. Lagunak ere baditut hemen. Txinatarrek dira, batez ere. Klima aldetik ere oso atsegina iruditzen zait".

IRINA  
TCHITCHENKO:  
"Euskara jakiteak  
asko lagundu dit  
harremanetan"

### Egokitze prozesua

Herriminik ez duelako edo, Valentinari ez zitzaion zaila egin hemen integratzea. "Oso ondo moldatu nintzen, egia esan. Kanariar Uharteetara iritsi nintzen, eta ez nuen, nire herrialdean bezala, segurtasunik eza ikusten. Urte eta erdi egon nintzen han, eta ez nintzen askorik akordatu Venezuelaz".

Ondoren, Euskal Herrira etorri zen, Zarautzera, zehazki, eta jendearen hizketako formak harritu zuen pila bat. "Gaztelaniaz hitz egitean bazirudien errietan ari zitzaizkidala. Baina, beno, segituan ohitu nintzen. Behin ateak zabaltzen dizkizutenean, gainera, taldean sartzen zarenean, konfiantza ematen dizu hemengo jendeak. Hitza ematen duzue, konfiantza, eta, gainera, betirako izan ohi da". Baina Valentinari herri txiki batean bizitzeak pixka bat kosta egin zitzaion. "Hiriburu handi batetik nator eta horrek ematen dizun anonimotasunaren falta sumatu dut. Nire gizonari, aldiz, asko gustatzen zaio jendea ezagutzea, kasu egitea, hitz egiten geratzea... Caracasen nengoeanean, nahi nuena egiten nuen inori azalpenik eman edo juzgatua sentitu gabe. Hemen hori zaila da".

Cesareok ere arazorik gabe egokitu zela kontatu digu. "Ez euskaldunekin, ezta ni bezala etorritakoekin ere, ez dut inoiz

# ERROTA



# OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta  
eta pastelak*

### LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60

CHENSHI **FU**

# BAKARDADEARI IRRIBARRE EGINEZ

**Jatorria:** Guangzhou hiria. Txinako hegoaldean. Hong Kong-etik gertu.

**Adina:** 26 urte.

**Lanbidea:** Dendaria.

**Ikasketak:** Unibertsitatean Ingeles Filologia egiten hasi zen. Urtebete egin eta utzi egin zuen, ez zaiolako ikastea gustatzen.

**Familia:** Hemen ez du familiarik.

**Hizkuntza:** Txinera. Gaztelania dendan, Interneten, kalean... ikasi du. Hona etorri aurretik, ez zekien batere ez. Euskaraz hitz batzuk bakarrik dakizki.

**Erlijioa:** Txinan gehienbat budistak dira. Bera eta bere familia, ordea, ez dira erlijiodunak.

**Afizioak:** Idaztea asko gustatzen zaio. Interneteko atari batean idazten du. Jadanik 3 eleberri argitaratu ditu bertan, eta orain laugarrena idazten ari da. Gai nagusitzat maitasuna jorratzen du; gazteen arteko maitasun harremanak, batez ere. Gauetan idazten du, eta lan gutxi dagoen hilabeteetan ere bai. Guztiak txinera idazten ditu. "Ez dakit oso ongi idazten, baina asko gustatzen zait".

Guangzhou hirikoa da Chenshi. "Milioika biztanle ditu nire hiriak". Zumaiera etorri zenean, herri txikia iruditu arren, asko gustatu zitzaion.

"Etorri nintzenean, konpainia gehiago nuen, nire izeba bat ere hemen zegoen. Batzuetan triste jartzen nintzen, hala ere, makina bat negar egindakoa naiz". Baina orain pozik dago, ohituta hemengo bizitzara. "Orain bakarrik bizi naiz, eta lan ere bakarrik egiten dut. Egun batzuk tristeak ditut, baina hori normala da". Hasieran bizi-moduarekin eta hizkuntzarekin izan zituen zailtasunak, baina orain nahikoa ondo moldatzen dela dio. "Zumaiaetik hondartza da gehien gustatzen zaidan tokia. Kostaldea asko gustatzen zait, nahiz eta niri eguzkia hartzea ez gustatu [barrez]. Baina asko gustatzen zait itsasoari begiratzea, erlaxatu egiten nau".

## Bueltatu zara Txinara hemen zaudenetik?

Bai, hasieran urtean bitan joaten nintzen (nire izeba hemen zegoenean). Orain, soilik urtean behin joaten naiz. Urrian izan nintzen. Izeba Txinara bueltatu da, ez dagoelako biontzat lanik.

## Gurasoak etorri dira hona bisitan?

Bai! Aitari asko gustatu zitzaion. Amari ez hainbeste. Ez zuen ezer ulertzen, ezin zuen inorekin hitz egin, eta horregatik zaila egiten zitzaion hemengo bizimodua. Aita lasaiagoa da, eta gustatu zitzaion.



## BEDUA ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMALEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industrigunea, 9  
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa  
tel. 943 143 369

## EGOKI



Erloju  
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6  
tel. 943 861 787



## BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

**BERRITUA**

Eusebio Gurrutxaga plaza  
Tel. 943861700



SAGARDO EKOLOGIKOA

www.ekainsagardoa.com • Tel.: 943 148 033



Erribera kalea, 6 20750 Zumala tel. 943 143 097  
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak  
Telekomunikazioak  
Informatika  
Internet



**DIGITAL+**



## ERNIO TABERNA

V. Arrate, 3

Tel. 943 860 045



**ERROTA**  
OPIL-OKINDEGIA  
SANTILLO AUZOA, 32  
20750 ZUMAILA  
TEL: 943860000  
943860612  
FAX: 943860977  
errotat@errotat-okindegia.com

## ERTZ INFORMATIKA

Portatilak  
konpontzeko  
zerbitzu berria

Eskaia surretan  
konpromisorik gabe,  
**DOAN**



Beheko plaza

tel./faxa: 943 143 395

## Galdona



burdindegia

Mendara mendiak, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346  
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

## GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057



kafetegia

Txomin Agirre kaia

Tel. 943862181

## ZATOZTE

zatozte.bakailaudenda@gmail.com

Juan Belmonte 4 behe 20750 Zumala

TF 943865383

Egin zaitez  
**BALEIKE**  
bartzide



## GOIKO TABERNA

Erribera, 9

tel. 943 861 391

goiz  
argazkiak  
ARGAZKI ESTUDIOA | ESTUDIO DE FOTOGRAFIA

www.goizargazkiak.com | goizargazkiak@gmail.com  
Txomin Agirre kaia, 2 behe

Ikastegi homologatua

## Golden Gate

Institute  
hizkuntza eskola



Erribera kalea 1 bis, behe  
tel./faxa 943 865 020  
goldengateinsti@telefonica.net

SAID **SAADI**

# “MAROKON, DENEAN BEZALA, JENDE ONA ETA TXARRA AURKI DAITEKE”

Said Tetuan hirikoa da. Handia da, eta turistikoa. “Hondartzak ditu, hotelak... Gainera, segurtasuna du. Ez da hiri gatazka-tsua”.

Herritarrak ere gehienbat turismotik bizi dira. Hoteletan egiten dute lan, jatetxeak dituzte, gidariak dira... Azken horiek garrantzitsuak dira turistentzat. “Desertu aldera joanez gero, eta haizea aurkitu, hondarrak bideak tapatu egin ditzake eta norae-zean geratu. Beraz, laguntza handia ematen dute gidariek”.

## Nolakoak dira marokoarrak?

Denean bezala, jende ona eta txarra aurki dezakezu. Baina hori ez da Marokoko gauza bat. Edozein tokitan berdina gertatzen da. Baina, orokorrean, jende atsegina da, abegikorra.

**Jatorria:** Tetuan. Maroko.

**Adina:** 38 urte.

**Lanbidea:** Azokako dendaria. Batez ere haurren arropa saltzen du. Gipuzkoatik zehar ibiltzen da azokaz azoka.

**Ikasketak:** Oinarrizkoak.

**Familia:** Emaztea marokoarra du (nahiz eta hemen ezagutu duten elkar), eta haurra izango dute laster.

**Hizkuntza:** Arabiarra. Frantsesa, ingelesa eta gaztelania ere badakizki. Eskolan hizkuntza asko erakutsi zizkioten. Ceuta ondokoa izanik, gaztelania han ikasi zuen. Euskaraz ere hitz batzuk egiten ditu. “Etxean liburu bat dut, eta hortik ikasten dut. Kalean ere zerbait ikasten da. Ez daramat denbora asko hemen, baina zertxobait badakit. Jendeari, bezeroari, gustatzen zaio, gainera, guk euskaraz jakitea. Aberasgarria da, gainera, hizkuntzak jakitea”.

**Erlijioa:** Musulmana. Etxean errezatzen du. Orion badute elkartzeko toki bat, baina berak, batez ere, etxean errezatzen du. Ongi iruditzen zaio errezatze toki hauek egotea hemen. Erljio guztiak errespetatzen ditu.

**Afizioak:** Kirola egitea

gustatzen zaio, gimnasia joaten da. Horretaz aparte, gauza askorik ez du egiten. Denbora lanean, etxea garbitzen... pasatzen du.



# "HIRU BELAUNALDI GEROAGO, NIRE FAMILIAREN JATORRIZKO HERRIALDERA ITZULI NAIZ"

Reno, Nevada. Kaliforniatik gertu. Birraitonak fundizioan lan egiten zuen Bizkaian, eta Estatu Batuetara joandakoan, Seatlen hasi zen lanean, bertako ontziola batean. Garai hartan, Ameriketako Estatu Batuetako gobernuak atzerritarrei eskaintzen zien lur zatiari probetxua emanez, hotel bat eraiki zuen Nevada erdian. "Euskal Herritik joaten zen jendea bertara lanera, batez ere artzain". Ordutik, familiaren oinarriak eta jatorria Renon kokatzen dira.

Renoko Unibertsitatea aski ezaguna da, eta euskara ikasketak ere eskaintzen dira bertan. Karolek berak, Antropologia ikasten ari zela, euskal kulturako ezagutzak hartu zituen.

Birraitona Estatu Batuetara joan zen, eta Karol, aldiz, handik Euskal Herrira. "Fenomeno bat da, eta esaten dutenez, norbait atzerrira joaten bada, hiru belaunaldi behar dira familiako norbait berriro jatorrizko herrialdera bueltatzeko. Kuriositatea nuen nire familia zati baten oinarriak ezagutze-ko, hemengo kulturaren berri jakiteko... Horrek asko lagundu zidan integrazioan".

## Nolakoak dira amerikarrak?

Ume handi batzuk bezala definituko nituzke. Inozenteak dira, maltzurtasunik gabekoak eta beraien buruarengan pentsatzen dute. Baina ez dira egoistak. Bakoitza bere bizitza aurrera ateratzen saiatzen da, eta horri ematen diote garrantzia. Askok ez dakite zer pasatzen den kanpo politikan, edo nola ikusten dituzten atzerrian amerikarrak. Zoriontasun indibiduala bilatzen dute. Hori da beraientzat garrantzitsuenak.

## Zerk harritu zaitu hemendik?

[Barrez] Gauetan, afaltzeko, arrautza frijituak jateak! Orain ohitu naiz, baina oso arraroa egiten zitzaidan. Bestalde, janaria, gailetak, esaterako, esnetan edo kafetan sartzea ere bai.

Horretaz gain, kontaktu fisikoa izateak ere harritu egiten ninduen. Hori, beharbada, nire izaerari loturiko kontu bat da. Baina, adibidez, taberna batean sartu eta jende asko badago, kontaktu fisikoa ekiditea ezinezkoa da, noski, eta horrek 'iraindu' egiten ninduen. Orain normaltzat daukat, asko gustatzen zaidan ideia bat da, gainera, baina hasieran kostatu egin zitzaidan ulertzea.



**CASA  
BASUSTA**  
LORATEGIA

*Ezkontzak, Bataioak, Jaunartzeak,  
Lore-zentruak, Koroak,  
Landare naturalak eta artifizialak,  
Zeramika-lanak eta zumezko saskiak*



**Izena:** Karol Belaustegi. Abizenak nahiko komeria eman zizkion txikia zenean, "eskolako zerrenda pasatzean, oso luzea suertatzen zitzairen irakasleei, arraroa, eta jakinda euskalduna zela, are gehiago. Baina nik eta nire familiak oso presente izan dugu betidanik hemengo jatorria dugula".

**Jatorria:** Hainbat herrialde nahasten zaizkio jatorrian: Suedia, Alemania, Euskal Herria. Bere birraitona joan zen Markinatik Estatu Batuetara.

**Adina:** 46 urte.

**Lanbidea:** Ingeleseko irakaslea.

**Ikasketak:** Antropologia. Estatu Batuetan arkeologo aritu zen.

**Familia:** Senarra eta bi seme-alaba.

**Erlijioa:** Katolikoarekin hezi zuten; beraz, alde horretatik ez du arazorik izan gizarte honetara egokitzeko bai egutegi, santu... aldetik. "Antzeko balioak ditugu". Baina guztien gainetik, familia du oinarritzat. "Hemen estimatzen ikasi dudana gauza bat da, eta asko baloratzen dut familiaren kontzeptua".

**Hizkuntza:** Ingelesa. Birraitona-amonek euskaraz egiten zuten beraien artean, baina umeei ez zieten erakutsi. Hala, semeak, hau da, Karolen aitona, ingelesa eta gaztelania ikasi zituen. Emazteak, aldiz, amonak,

ingelesa eta alemana zekizkien. Izan ere, jatorri alemaniarretik zetorren. Bien arteko seme-alabek, aldiz, hau da, Karolen aitak tartean, ingelesa baino ez zuten ikasi. "Orduan, auzoan herrialde ezberdinetako jende asko zegoen (Italia, Portugal, Suedia...), eta orduko joera soilik ingelesez egitea zen. Ez zuten pentsatu ere egiten beste hizkuntza bat jakitea zeinen aberatsa izan zitekeen". Beraz, Karolen aitak soilik ingelesa ikasi zuen, eta berak ere bai; ez gaztelania, ezta alemana ere. "Aitonak oso gaizki pasa zuen ingelesa ikasten, eta orduan ez zien seme-alabei ere gauza bera opa nahi izan".

Karolek gaztelania hemen bizi denetik ikasi du, kalean. Euskara, aldiz, etorri zenean euskaltegian ibili zen eta berriro ere bai bigarren haurrarekin haurdun egon zenean. Guztia ulertzen du, eta hizketan ere nahikoa badaki. "Hala ere, hobetu eta gehiago ikasiko dut". Bere umeei ere ingelesa oso ondo dakite. "Nik ingelesez egin diet txikitatik eta aitarekin euskaraz egiten dute".


**Afizioak:** Botanika. "Nire pasioa da, baina orain alde batera utzia dut". Familian egitea gustatzen zaiena batez ere mendira joatea eta bidaiatzea da. Oso garrantzitsua ikusten du hori. "Guretzat, gure haurrei egin diezaiekegun oparirik handiena mundua erakustea da".

Egin zaitez  
**BALEIKE**  
bazkide



GERRAKO BOST  
DESAGERTU  
ALBATU DITUZTE

*Cure-Txokoa*  
aberna



Upela plaza, 4  
20750 Zumaiak  
Tel.: 943 86 09 70

English School  
**Harvest**

...eta udaran Ingalaterrara ingelesa praktikatzera  
[www.academiaharvest.com](http://www.academiaharvest.com)

San Jose, 11 bis tel. 943 143 334

**API**  
**ibai**  
gain  
inmobiliaria

Ricardo Azkue  
API 399

Txomin Agirre 4, beheak  
tel. 943 862 651  
faxa 943862748

[rjzicue@euskalnet.net](mailto:rjzicue@euskalnet.net)

*ilarfi*



Alai auzategia, 2  
Tel. 943 24 50 20

**INPERNUPE  
ELKARTEA**



Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

**IRUITZ**



Ileapaindegia Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIK (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 860 760

**TXALAPARTA**  
OPARIK



Angelos Soratu, 2  
20750 ZUMAIK (Gipuzkoa)  
tel. 943 143 089  
faxa 943 430 637

**Itzurun, S.L.**  
Aroztegia



Ateak, leihoak, tarimak, armairu enpotsatuak...

Itzurun Zuhaitzibidea, 2 beheak  
Tel. / Fax: 943 86 15 65

**ORRAZTEGI**  
ZUMAIK



943 862 083

**JUARISTI**  
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran  
Eguneko menua  
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943 861 853

**Kaia**


Pintxoak eta  
otartekoak



Txomin Agirre kale, 8

**KABI** Patxita Etxezarreta, 15  
943 117 427

TABERNA



**Kaithermik S.L.**



**Arotzeria metalikoa**  
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,  
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

**kalari**



Upela plaza, 8  
tel. 943 862 517

**PAPER** diseinu grafikoa



Roberto Gutierrez  
696 211 111 • [rgutierrez@rgutierrez.org](mailto:rgutierrez@rgutierrez.org) • [www.rgutierrez.org](http://www.rgutierrez.org)

**Kresala**  
Taberna



Julio beobide 3, tel. 943 019 869

# CESAREO **HERNÁNDEZ LÓPEZ**

## 50EKO HAMARKADAKO MIGRAZIO OLATUAREN LEHENENGO SEMEETAKO BAT

La Horcajada deitzen den herri txiki batekoa da Cesareo, Avila hiri-burutik 75 bat kilometrora. “Nekazaritzatik bizi den herri txiki bat da. 500 bat pertsona bizi dira, baina herri zaharkitua da; izan ere, gazteek alde egin dute handik. Orain, ez da uzta askorik egiten eta batez ere abeltzaintzatik bizi dira herritarrak. Ardiak eta behiak hazten dituzte, gehienbat”.

Udaran biztanle kopurua hazi egiten da. Oso beroa da sasoi horretan. Neguan, aldiz hotz handia egiten du. “Egurra erretzen jarri behar da!”.

**Jatorria:** La Horcajada, Avila, Espainia. Herri horretatik ateratako lagunak % 90 Zumaian bizi da.

**Adina:** 74 urte.

**Lanbidea:** Jubilatua. Lehenengo portuan, gero fabrika batean eta azkenik butanoan egin zuen lan.

**Ikasketak:** Oinarrizkoak.

**Familia:** Emaztea eta bi alaba eta semea.

**Erligioa:** Katolikoa.

**Hizkuntza:** Gaztelania. “Euskara ikasteko oso baldarra izan naiz, eta ez dut gaitasunik izan. Egia esan, gogo gutxi jarri dugu ikasteko. Kalean ikastea bakarrik zaila da, eta ez dut lortu. Hemen euskaraz baino ez balitz egin, ikastea beste erremediorik ez genuen izango, baina gaztelaniarekin nahikoa zen eta orduan jende asko zegoen Espainiatik etorria. Alabek eskolan gaztelaniaz ikasi zuten; semeak, aldiz, ikasketak euskaraz egin zituen eta euskaraz ondo daki”.

**Afizioak:** Egurrekin gauzak egitea, hala nola, erlojuak, gurdien maketak, makilak... Jubilatu aurretik ere egiten zituen, baina orain denbora gehiago duenez, gauza gehiago egiten ditu. Lagunekin kartetan jolastera ere joaten da, emaztearekin ibiltzera...

Zumaia etorri zenean, baratzea ere bazuen.

Asko gustatzen zitzaion hara joatea.

Arrantzan ere ibilia da, anguletan, batez ere.





**kuttun**  
lentzeria

erribera kalea tel. 943117936



**malaur**



**MAITE**  
ILEPAINDEGIA

Arriako plaza, 2 tel. 943 143 278



**Maluta**  
jatetxea • taberna

oilasko erreka • kaxuelitak • ogitartekoak  
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizzak  
hanburgesak  
bokatak...

**marina**

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



**MENDI - ONDO C.B.**  
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569



**METRO**  
taberna

ogitartekoak  
pintxoak

Upela plaza, 7  
tel: 943 537 901



**NOIA S.L.**  
TAILERRAK ETA  
KARROZERIAK

Etengabeko garabi zerbitzua

Hego kalea, 83 (Estazioan)  
20750 - Zumaia  
Tel.: 943 861 363  
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar indurtegia, C  
20820 - Itziar-Deba  
Tel.: 943 606 291  
noia@carroceriasnoia.com

636 887 812 (Zumaia)  
609 834 438 (Itziar-Deba)  
www.carroceriasnoia.com



**Nikol**  
taberna

Arriako plaza 943561516

**MARGARI** Aruta-denda

Tel. : 943 86 19 20  
Harategi Kalea 17 - ZUMAIA

**"Muagi"**

errehabilitazioa  
kirol medikuntza  
fisioterapia

RPS: 034/97 Alai Mari, 3. blokea tel. 943 861 691



**ETXEGINTZA**  
**OLIDEN**  
CONSTRUCCIONES Y REFORMAS, S.L.

Era guztietako berrikuntza eta igeltserotza lanak:  
**FATXADAK ETA TEILATUAK**  
Sukaldeak, bainugelak...

Tel. 647 040 156 / 686 911 257



**OSA**  
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa  
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149



**OSKARBI**  
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranaltz, 1 Tel. 943 143 112  
oskarbikirolak@euskalnet.net



**OSTOLAZA**  
OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Kortu Indurtegia, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45  
www.ostolaza.com • e-mail: ostol@ostolaza.com

**Ostolaza**  
Altzariak

Julio Beabide Ibilbidea, 1  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
mueblesostolaza@euskalnet.net

Tel./Faxa: 943 86 13 25

**OTEZURI**  
KAFETEGIA

Gosariak  
Ogia  
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401

inorekin arazorik izan". Oso bertakoa sentitzen da. "Noski, ni Avilan jaiotakoa naiz. Baina hona etorritako lehen egunetik sentitu naiz hemengoa. Jubilatu nintzenetik ere, hemen bizitzen jarraitu dut. Soilik udarako sasoia pasatzera joaten naiz hara, urtean 3 hilabete. Gainera, nire seme-alabak hemen ditut, bilobak ere bai. Eta beraiek dauden tokian egotea da nire betebeharra". Zumaiaiko herriak ere oso ongi hartu zuela gogoratzen du: "Brometan, askok deitzen ziguten *koreanoak* Penintsulatik etorritakoei. Baina gero tratua beti izan da ona. Batzuek pentsatzen zuten inbaditzera etorriko ginela, baina garai hartan guztientzat zegoen lana, eta orduan ez zegoen arazorik".

Karolen kasuan, hasiera pixka bat gogorra egin zitzaion, "familia eta lagun oniritzi handirik gabe etorri nintzen, eta hasiera nahiko gogorra izan zen, hizkuntza ere, gaztelania, hasieran, ez nuelako askorik kontrolatzen. Baina burugogorra naiz, eta familiari erabaki okerra hartu nuela ez onartzeagatik, bertan jarraitu nuen". Bere iritziz, "egokitzea denbora kontua da, eta norberaren erresistentzia ere bai. Nik behatu egiten nuen hasieran, jendearen ohiturak ikusi eta ikasi. Ondoren joaten nintzen ekintzara, behin ezagupenak jakinda. Horretaz gain, senarra hemengoa izateak ere asko lagundu dit, jakina". Integrazio prozesu horretan esaterako, badu Karolek anekdotak atsegin bat. "Beti izan nuen gogoa Sanpedroetako danborradan parte hartzeko, baina euskaraz oso ondo ez nekenez, pentsatzen nuen ez nintzela integratuko. Alabak, ordea, parte hartza animatu ninduen. Ordutik danborradan ateratzen naiz".

Giovanniren kasuan ere, hasierako urteak oso gogorak izan ziren. "Lana aurkitzeko zailtasunak izan nituen eta ia bueltatzekotan egon nintzen, baina azkenean aukera bat sortu zitzaidan. Nire enpresa edo kontsultoria zabaldu nuen". Lanaren arazoa konponduta, oso ongi moldatu da hemengo bizitzara. "Ni askoz ere herri txikiago batetik nator, eta Zumaia oso ongi moldatu naiz. Kostaldea da, eta asko gustatzen zait. Batzuetan mendiko paisaia elur-tuez akordatzen naiz, baina ez, oro har. Jone alboan izateak, eta haren familiak ere, asko lagundu dit adaptazioan. Baina Italiako familiaz eta lagunez ere asko akordatzen naiz, gogoratzen naiz beraiekin, normala da".

Irinari, batez ere, herriaren tamainara egokitzea kostatu zitzaion. "Nire jatorrizko hiriarekin konparatuta, oso txikia da. Baina oso pozik bizi naiz orain, oso herri polita iruditzen zait eta gustura nago. Gaur egun ez dut hiri handi batean bizi nahi. Hemen dena dago hurbil eta ongi komunikatuta, erosoa da. Umeekin ibiltzeko ere oso ondo dago".

Chenshik komunikazio arazoak ditu, batez ere; izan ere, gaztelania ere ez du oraindik gehiegi ezagutzen. "Ez naiz inoiz gaizki sentitu. Jendeak asko laguntzen dit. Batez ere dendan nagoenean eta ez badiet ulertzen, asko saiatzen dira polikia-

go hitz egiten, edo beste modu batean azaltzen". Lanaz gain, eguerdietan adopzioan dauden hiru neskatilari txinera erakusten die. Hori guztia eginda, apenas du aisialdirako denborarik. "Gainera, etxe giroan egotea gustatzen zait".

Txanponaren beste aldean, Kalin dugu. Bere iritziz, ez da hain ongi integratu. "Ez naiz oraindik egokitu. Oraindik pentsatzen dut egunen batean bueltatu egingo naizela. Gainera, ateratzen naizen gutxietan familiarekin ibiltzen naiz. Hala ere, gustatzen zait hemen bizitzea, lasaia da. Garai batean, Bulgariar biolentzia asko zegoen, eta hemen, aldiz, alde horretatik, ez dut arazorik ikusten".

Hala eta guztiz ere, euskara ikasteko ahalegina egiten ari da: "Ikastea gustatzen zait, eta beharrezkoa ikusten dut hemen bizitzeko. Gainera, pertsona asko hasten zaizkit euskaraz hitz egiten, eta nik ezin diet erantzun. Horregatik hasi nintzen ikasten. Ez dut, dirudienez, atzerritar aurpegia!".

### Bazterketarik ba ote?

Etorkinenganako bazterketa edo mespretxuzko egoerak askotan ikusi ohi dira komunikabideetan. Gogorra izango da beste toki batera joan eta norberaren pentsaera, jatorri, erlijio, arraza edo ohituregatik gaizki tratatua izatea. Erreportajeiko protagonistak ez dira inoiz Zumaia-tik kanpo jaiotzeagatik bereiziak edo baztertuak izan. "Ni ez naiz inoiz baztertua izan atzerritarra izateagatik, behintzat. Nire izaeragatik beharbada bai, baina hori ni pertsona ezberdina naizelako da, eta ez atzerritarra. Gero eta atzerritar gehiago dago hemen, eta ez dut sekula entzun inori burula edo mespretxurik egiten", aipatu digu Kalinek, hain zuzen ere.

Karol ere iritzi berekoa da. "Askotan jendeak berak gogoratzen dit ez naizela hemengoa nire itxura edo azentuagatik. Jendeak soilik pentsatzen du coca-cola eta hanburgesak besterik ez dugula jaten; hain estereotipatua dago kultura amerikarra!. Eta ez da horrela. Niri, gainera, sukaldean aritzea asko gustatzen zait.

Eta hemengo kulturarekin bat egin dut alde horretatik". Ildo horretatik jarraituz, haxe kontatu digu: "Ez nago ados nire kulturaren edo Ipar Amerikako politikaren hainbat alorrekin, baina horrek ez du esan nahi nire kultura albo batera utzi edo baztertzeko dudarik. Beste kultura bat ezagutzera etorri nintzen hona, jadanik bizitza erdia daramat hemen eta oso pozik nago".

Giovanni ere Zumaiaiko parte sentitzen da dagoeneko. "Integrazioaren bidea ondo atera zait, eta guztiz gizareratuta nago. Elkarre gastronomikoaren bitartez, abesbatzan ibiliz, kirola eginez... Gainera, onartu behar dut kultura aldaketa handiegirik ez dudala sufritu. Antzekotasunak ditugu, eta, beraz, errazagoa izan da beste edonorentzat baino. Hala ere, prozesu bat

GIOVANNI ZANON:  
"Italia iparraldekoak  
eta euskaldunak  
oso antzekoak gara  
orokorrean"

CHENSHI FU: "Etorri  
nintzenean pertsona  
denak berdinak  
iruditzen zitzaizkidan"

IRINA **TCHITCHENKO**

## HOTZA MAITE DUEN EMAKUME GOXOA

Errusiako hegoaldeko Krasnodar izeneko hirikoa da Irina, Itsaso Beltzaren ingurukoa. Klima epelekoa da. Errusia hartzarekin erlazionatzen dugu, baina hegoaldea epela da. “Lau urtarok ongi bereizten dira han. Udak oso beroak dira, eta neguak ez oso hotzak, [barrez] -12 gradu, gutxi gorabehera”.

Hiri handia da Krasnodar, milioi bat biztanle ditu, gutxi gorabehera. Hegoaldeko hiririk garrantzitsuenak da, kostalde-  
ra joateko “pasoko” hiria da. Errusia, Europan eta Asian dago. Bi kontinenteak hartzen ditu. Bereizketa Ural mendiek egiten dute, eta Irinaren hiria Europan kokatzen da.

Ekonomiaren aldetik, Errusia asko aldatu da. Lehen komunismoan bizi ziren, eta orain kapitalismoa da nagusi. Merkataritza eta komertzio asko dago, eta asteko egun guztietan zabaltzen dute. “Nire lagunak, adibidez, harritu egiten dira hemengo dendak duten ordutegi murriztarekin”.

**Errusiako politika**

Oso totalitarioa da. Putin dago, eta listo. Orain homosexualen kontra joan dira, era batera pentsatzeagatik kartzelara eramaten zaituztete... Gogorra da alde horretatik Errusia.

**Jatorria:** Errusia.

**Adina:** 42 urte.

**Lanbidea:** *Urola Kostako Hitza* banatzen du 2005etik. Horretaz gain, helduen eskolan dabil, Azpeitian.

**Ikasketak:** Ekonomia eta Produkzioa, Errusian.

**Familia:** Senarra eta hiru seme-alaba.

**Erlijioa:** Kristau ortodoxoa da, baina ez du praktikatzen. “Gure erlijioak, katolikoarekin konparatuta, diferentzia batzuk ditu”.


**Hizkuntza:** Errusiarra. Gizona ezagutu zuenean ingelesez hitz egiten zuten; gero gaztelaniara, pasa ziren; eta orain euskaraz hitz egiten dute guztiek etxean. “Eboluzioa izan dugu familian”.

Guztira, 5 urtez ibili zen euskara ikasten Zarauzko euskaltegian: “Segituan hasi nintzen hizketan, praktikatzen, saiatzen. Bestela ahaztu egiten da”.

**Afizioa:** Mendira joatea, eta irakurtzea, batez ere. Hiru hizkuntzatan irakurtzen du: errusiarrez, gaztelaniaz eta euskaraz.



WIKIPEDIA.ORG



Etorkinen aurka ere asko daude. Lan zikinak egiten dituzte, eta, gainera, albo batera uzten dituzte. Errusiar arrazaren alde daude. Beldurra ematen du. Krisi egoeran gertatzen da hori askotan, errudun bat bilatu behar baita.

### **Nolakoak dira errusiarrek?**

Errusiako jendea oso atseгина eta irekia da. Nire senarra, adibidez, hasieratik ongi hartu zuten nire lagunek eta familiak. Alde horretatik, oso abegikorrek dira, are gehiago errusiar batekin baldin bazoaz. Berari galdetuz gero, gauza onak esango ditu, ez zelako inoiz baztertuta sentitu.

### **Zer da hemendik ezberdinena iruditzen zaizuna?**

[Barrez] Gailetak eta madalenak esnetan bustitzea, esaterako. Eta gosariak ere oso txikiak iruditzen zaizkit hemen.

Guk arrautza eta horrelako gauzak jaten ditugu gosarietan.

Txipiroiak tintan ere oso gauza arraroa iruditzen zitzaidan. “Zer da gauza beltz hori?”, esaten nion senarrari. Guk han oso arrain ona daukagu, izokin ketua, adibidez.

Ohiturei dagokienez, poteoa egitea hemengo gauza bat da, bai. Errusian ez da hori egiten, taberna batetik bestera distantzia handia dago. Poteoko giroa asko gustatzen zait, ez gara asko ateratzen, baina oso giro atseгина egoten da.

Tradizioak asko gustatzen zaizkit. Hemengo abestiak, dantzak... Nola gordetzen dituzuen oso interesgarria eta polita iruditzen zait.



**Jatorria:** Italia.

**Adina:** 46 urte.

**Lanbidea:** Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) kontsultorea.

**Ikasketak:** Estatistika.

**Familia:** Emaztea eta bi seme.

**Erlijioa:** Katolikoa.

**Hizkuntza:** Italiara. Etxean ere italieraz egiten dute guztien artean. Hala ere, euskaraz moldatzen da, batez ere ulertu egiten du. Horretaz gain, gaztelania eta ingelesa dakizki, eta aleman pixka bat ere bai.

**Afizioak:** Kirola eta musika, batez ere. Hemen dagoenetik pilotara afizionatu da, pala eta zestara ere bai. Eta bizikletan ibiltzen da, "gainera, zikloturisten lehendakaria naiz".

Musikarekin lotura txikitat du. Fraideen eskolan egin zituen lehenengo ikasketak eta han erakutsi zioten gitarra jotzen. Handitzen ari zen heinean, bera izan zen haur txikien gitarra irakasle. "Eskola horrek horrela funtzionatzan zuen: zekitenek ez zekitenek erakutsiz. Filosofia polita zuen". Italian musika talde bateko partaide zen, rock italiarra jotzen zuten. Urtebete pasatxoan, musikatik bizi izan zen. Diskoak kaleratu zituzten, kontzertuak egin... Hona etorri zenean albo batera utzi zuen, baina gaur egun ere talde batean jotzen du: *Melissa and The Jacks*. Bera da sortzailea Mutrikuko batekin, eta amerikar bat dute abeslari.



izan da integrazioarena, denbora bat eskatzen duena".

Irinak oso ongi egokituta dagoela baieztatu du: "Jendeak oso ongi onartu nau. Gainera, euskaraz jakiteak asko lagundu dit harremanetan. [Barrez] Behin, batek ere komentatu zidan: 'Nongo baserrian hitz egiten da horrela?', 'Errusiako baserrian', erantzun nion nik. 'Eta non dago hori?', galdetu zidan". Herriko beste bat gehiago sentitzen da: "Bai, zergatik ez! Gainera, dudan lanarekin jende asko ezagutzen dut, eta oso gustura nago".

Saidek pentsatzen du hemengo jendea gero eta ohituagoa dagoela atzeritarrekin bizitzen, eta ez du arazorik izan. "Gero eta atzeritar gehiago gaudela. Hasieran, gehiago harrituko ziren, baina orain normalagoa da, eta guztiok errespetatuz ondo bizi gaitezke elkarrekin. Laguntzeko garaian, elkar errespetatuz gero, dena errazagoa da. Eta berdin da atzeritarra edo hemengo izan. Ni oso ondo moldatzen naiz bai bizilagunekin eta jendearekin, orokorrean".

Valentina ere bertako sentitzen da, baina "beste edonora joateko beldurrik ez dut. Hori bai, Venezuelara ez, ezta pentsatu ere. Ez dut euskaraz hitz egiten, baina hemengo bezala sentitzen naiz. Nik uste dut integratuta nagoela. Ez dut

koadrilarik, baina, egia esan, ez dut horren faltarik sumatzen. Ama izateak ere laguntzen du integrazioan". Zenbaitetan errespetu falta iruditzen zaio jendeak bere artean euskaraz hitz egitea bera aurrean dela. "Niri zoragarria iruditzen zait euskara mantentzea eta ikastea. Zuen hizkuntza da eta ulertzen dut batzuei kostatu egiten zaiela gaztelaniaz hitz egitea, betidanik euskaraz egin baitute. Baina niri euskaraz ez dakien baten aurrean euskaraz hitz egitea errespetu falta iruditzen zait. Eta gertatu izan zait".

## CESAREO HERNÁNDEZ: "Beharrak ekarri ninduen Zumaiara"

### Nolakoak gara gu?

Jadanik batzuek urte asko daramatzate hemen eta oso ongi ezagutzen dituzte gure ohiturak, kultura, izaera eta jokatzeko erak. Baina nola ikusi gintuzten etorri zirenean? Zer pentsatu zuten zumaiarrez, edo euskaldunetz, orokorrean?

Karolek lehen urte zuen oso pertsona folklorikoak ginela. "Beharbada hori ikasi nuelako unibertsitatean. Horrez

gain, euskara hizkuntza hain zabaldia zegoenik ez nuen pentsatu ere egiten. Hala ere, ni etorri nintzen garaian nahiko zaila zen diskoak edo liburuak euskaraz aurkitzea. Orain, kultur produkzioa asko zabaldu da". Bestalde, oraindik harritu egiten du koadrilaren kontzeptuak: "Bertako koadrila bateko

GIOVANNI **ZANON**

# ROCKERO ZAHARRAK EZ DIRA INOIZ HILTZEN

Italia iparraldekoa da Giovanni, Aurre Alpeetakoa, zehazki. Austriatik oso gertu. Horrek gurekiko antzekotasuna ematen diola pentsatzen du. Izan ere, beraiek ere ez dira estereotipoek agintzen duten ohiko italiarrak, berak esaten duen bezala, “Napolesekoa”.

“Italiarrak langileak eta zintzoak dira, eta nire ingurukoak ez dira hain irekiak”, aipatu du. “Konfiantzazkoak, diskretuak, dibertigarriak, baina kontrolatuta. Horregatik, nire ustez, euskaldunen antzekoak gara”. Erromatik behera ezberdinak direla dio. Beste izaera bateko jendea direla.

Malé izeneko herri txiki batekoa da Giovanni, 1.000 biztanle inguru dituen. Dolomitetan kokatzen da herria, baita bailara guztia ere. Oso turistikoa da, bai neguan, baita udaran ere. Neguan eskiatzeko aukera dagoelako, eta udaran

mendiaz goza daitekeelako. Turismotik bizi dira hango biztanleak.

Gurasoak han bizi ditu. Aita matematikaria da, eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan (IKT) egiten zuen lan. Ikasketak Trenton egin zituen eta lanean Milan inguruan ere ibilitakoa da. Aita aitzindaria izan zen IKT gaietan Italiako iparraldean.

## Hemengo gauzarik arraroena?

Niretzat arraina aurkikuntza handia izan da. Han ez nuen askorik jaten, beharbada mendian bizi ginelako, eta hemen zoragarria iruditzen zait. Hasieran, txipiroiek harritu ninduten, gehienbat. Baina asko gustatzen zaizkit.

Kalean egiten den bizitza ere asko gustatzen zait, poteoa, pintxoak... Baina gehien harritzen nauena, edo beldurtu, ordutegiak dira. Hemen oso berandu ateratzen da kalera jendea, edota festa berandu hasten da, eta etxera bueltatu ere bai. Orain seme gazteak ditudanez, horrek arduratu egiten nau.



## denda:

Mendaro marinela, 1

tel.: 943 143 346

## biltegia:

Jose M<sup>a</sup> Korta Industrigunea

Pab. A6.1, 2-5 mod.

tel.: 943 861 117

fax: 943 861 330

industriarako nahiz etxerako

era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak

**Primavera**  
pizzeria

943 247 011

www.laprimaverapizzeria.com

**Rosi** Garbiketak

Etxeak eta dendak  
Enpresa eta auzo lanak  
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353

**RUBIO** Pinturak

PINTURAK,  
ARTE EDERRAK,  
ALFONBRAK,  
DROGERIA,  
PINTATURIKO PAPERAK,  
ESKULANAK...

943 861 335 • 656 779 788  
Erribera 1 behea

**SESMA**  
ENTRENATZAILE PERTSONALA

Kalitatezko Jarduera Fisikoa eta Kirola

667 750 206  
www.entrenadorpersonalesma.com  
josebasesma14@gmail.com

**Talaya**  
taberna • jatetxea

Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370

**TALAI-PE**  
jatetxea-erretoria

Arrainak, mariskoak eta txuletak parrillan  
Julio Beobide ibiltokia Tel. 943861392

**Tapaia**  
Taberna

Erribera kalea  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
tel. 943 861 973

**TTAKUN TABERNA**

Izustarri, 3  
tel. 943 865 289

**TXIMISTA**  
garagardotegia

Ogitartekoak  
Plater konbinatuak  
Txerri-ukondok (hodilloo)  
Salxitzak, oilaskoak...  
Garagardok dukerak

Ondartza plaza, 4 beheko Tel. 943 573 905

**Txingurri**  
Loradenda

Loradenda Lorazaintza  
erribera, 1 tel. 943 860 778  
tel. 943 861 180 655 703 343

Nekazaritza Injineru Teknikoak

**UKENDU**  
PARABOTIKA  
BELARDENDA

Aitziber Etxeberria Garro  
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com

**UPELA** PARABOTIKA  
BELARDENDA

- ✓ Sendagai naturalak.
- ✓ Osteopatia eta masajeak.
- ✓ Naturista, dietetika eta elikadura.

Upela plaza, 9  
943 537 911  
upelabelardenda@hotmail.com

Egin zaitez  
**BALEIKE**  
baskide

**BALEIKE**  
GERRAKO BOST  
DESAGERTU  
AURITU DITUZTE

**Zalla**

- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Upela Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA

**ZUMAIA AUTOESKOLA**  
E-mail: zumaiaautoeskola@euskalnet.net

BASADI 12  
20750 ZUMAIA  
Tel: 943861010 / Fax: 943016126

**Zumaia Hotela**  
Jatetxea  
Kafetegia

Alai auzategia, 20750 Zumaia tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

**EuroTaller**  
ZUMAIA MOTOR, S.L.

José Rey Alfaro  
Gerente

Santxo Auzoa, 22  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
Telf. 943 143 143 - Fax 943 865 161  
e-mail: zumamotor@telefonica.net

**Zumaia optika**

Txomin Agirre kaia, 6 tel./faxa: 943 143 057

partaide ez bazara, jendeak ez daki pertsona bat non kokatu. Euskal gizartearen bi ardatz nagusi dira nire ustez koadrilak eta elkarteak. Horietan partea hartzeak asko errazten du integrazioa”.

Cesareorentzat gezurra da pertsona itxiak garen topikoa. “Niri ez zait iruditzen. Edozein hizketaldi izateko beti izan dut aukera, eta egoki, gainera. Ez nuen ezberdintasun handirik nabarmendu nire herritik hona etorri nintzenean. Festa eta janari aldetik ere antzekoa da. Hori bai: hemengo janaria oso ona da!”.

Giovannik eta Valentinak euskaldunen izaerari ematen diote garrantzia. Giovanniren iritziz, zintzoak, serioak eta langileak gara. “Inguruan jende ona tokatu zait, egia esan. Kultura interesgarria duzue, gainera. Zuen jatorria defendatzen duzue, ohiturak, hizkuntza... eta lan asko egiten duzue horretan. Miresgarria iruditzen zait”. Valentinari ere izugarri polita iruditzen zaio euskal kultura. “Tradizio horri ematen diozuen indarra eta lanketa txundigarria da. Dantzei, herri kirolei... guztiari. Eta gastronomiari dagokionez, zer esanik ez!!! Munduko onena duzue!!!”.

Chenshi da, beharbada, guztietan ikuspuntu bereziarena duena. “[Barrez] Hasieran, denak berdinak iruditzen zitzaizkidan, fisikoki, esan nahi dut. Bakarrik neska eta mutilak bereizten nituen. Kulturalki oso ezberdinak gara, baina gustatzen zait ezberdintasun hori. Hemen, gainera, pertsonari ematen zaio garrantzia. Berdin da pertsonaren egoera ekonomikoa. Txinan, ordea, alderantziz da. Zoritzarrez, lehiakortasun handia dago pertsonen artean”.

### Etorkizun hurbilean, zer?

Chenshi da bueltatzekotan dabilenetako bat, baina arrazoia ez da lan edo adaptazio arazoa. “Gurasoak zaharrak ditut, eta, beharbada, haiek zaintzera joan beharko dut. Baina ez dut nahi joan, oso pozik bizi naiz hemen, lana daukat eta nahiz eta familia urruti izan, ongi moldatzen naiz. Ez dakit, ikusiko dut aurrerago”.

Karolek, aldiz, bizitza hemen egina du, familia bertan sortu du, eta ingeles akademia ere jarrita dauka. “Nik hemen bizitzea aukeratu nuen, eta erabaki horrek bere erantzukizuna du. Ezin naiz Estatu Batuetako bizitzarekin konparatzen egon, bestela sufritu egiten delako. Gaur egun, nire etorkizuna hemen ikusten dut. Senarra eta seme-alabak bertakoak dira, eta horiek beste inora joan ezean, ni ere hemen geratuko naiz. Hori bai, nahiz eta hemen gustura bizi, noizbehinka, urtean behin, behintzat hemendik ateratzeko beharra izaten

dut, hau da, bidaiatu. Eguzkia behar dut, Renoko klima oso beroa eta eguzkitsua da, eta hori estimatzen dut. Hona etorri nintzenean ez nekien aterki bat zabaltzen ere! [barrez]”.

Irinak ere ez du Errusiara bueltatzeko beharrik ikusten. “Han ez dut familiarik, soilik izeba bat. Orain nire bizitza hemen dago. Senarraren familia nire familia da. Nire haurrak ere hemengoak dira eta bizitza hemen dugu egina”.

Giovannik ideia bera du: hemen geratzea. Aldiz, zahartzaroa Italia eta Zumaia artean pasatzea gustatuko litzaioke. “Baina orain zaila da mugitzen hastea. Semeak gazteak dira eta beraien bizitza hemen dago. Nik, nire lanagatik, mugitzea errazagoa daukat inongo arazorik gabe, baina hemen gustura gaude”.

Cesareo aspaldi dago erretiroa hartuta eta ez da bueltatu Avilara. “Ni ez naiz Zumaia mugituko. Ez dut uste hiltzera ere hara joango naizenik. [Barrez] Hil ondoren eraman beharko nautte! Are gehiago, Zumaia ez dut aldatzen ez Donostiagatik, ez Zarauzgatik, ezta inguruko beste herri bategatik ere. Asko handitu eta hobetu da herria, polita da, denetarik dugu, eta oso gustura bizi naiz hemen”.

Saidek ere, momentuz, hemen ikusten du bere burua. “Laster haurra izango dugu, eta horren zaintzaz arduratuko gara. Mutikoa izango da eta ongi etortzea da garrantzitsuen. Erraz ikasiko du euskara, eta hemengo bizitzara egokituko da. Hemengoa izango da, jakina”. Emaztea eta biak ongi

daude hemen, “Lana eta osasuna izan bitartean, ondo gaude. Marokon lana ere badago, baina zortea ere behar da. Zailagoa da bizimodua ateratzea, ezegonkorragoa da”.

Valentinari, berriz, ez dio beldurrik ematen bihar bertan maletak egin eta beste leku batera joateak. “Ez daukat inongo herriminik. Ez dut Venezuelako ezerean falta sumatzen; beno, amona besterik ez. Bueltatu izan naiz urte hauetan hara, oporretara, eta beldur handia pasa dut. Kalera irten eta etxera bueltatuko zaren ez jakitea izugarria da”. Hala ere, pentsatzen du hemen etorkizun hurbilean gauzek aldatu egin beharko dutela. “Gu, hala ere, nahiko ongi gaudela uste dut. Espainian zehar, zenbat eta hegoalderago joan, orduan eta okerrago daude”. Baina momentuz pozik dago bertan. Jostundegia dauka amarekin batera, flamenkoa ikastera joaten da Donostiara, Astindu dantza taldean dabil... “Ni saiatzen naiz hemengo ohituretan, festetan... parte hartzen. Beharbada, ez dut ehuneko ehunetan egingo, baina saiatzen naiz. Gainera, hemengoa den alaba bat dut, hemen jaioakoa, hemengoa dena. Beraz, berarekin batera egiten ditugu gauzak”. ■

IRINA  
TCHITCHENKO:  
“Behin batek  
komentatu zidan:  
‘Nongo baserrian  
hitz egiten da  
horrela?’ ‘Errusiako  
baserrian!’ ,  
erantzun nion”

VALENTINA  
PALMERO:  
“Euskaraz ez  
dakien baten  
aurrian euskaraz  
hitz egitea  
errespetu falta  
iruditzen zait”

# ZUMAIA KALITATEZKO ESPERIENTZIA



Egin facebook-eko jarraitzaile  
eta irabazi **200 €**  
gastatzeko esperientzia bat.

Gure **facebookeko jarraitzaile** guztien  
artean esperientzia 1 **zozketatuko**  
dugu **hilabetero**.  
**Zuk zeuk bizitzea onena!!**



[www.facebook.com/ZumaiakoMerkatariOstalaritzaElkartea](https://www.facebook.com/ZumaiakoMerkatariOstalaritzaElkartea)

*\*Esperientzia, personal shopper batekin bi orduz erosten jardutea izango da.  
200 euroko aurrekontu bat izango duzu elkarteko edozein dendetan erabiltzeko.*

# EUSKARA, BESTELA EZ GARA HITZALDI ZIKLOA ZUMAIAN



Zumaiako Udala

**Alondegian 18:30ean**

## Otsailak 19

Joanito Dorronsoro  
eta Amets Arzallus:  
'Puntuka'

## Otsailak 26

Paula Kasares: 'Familia  
euskarari iraunarazteko  
estrategietan'

## Martxoak 5

Xabier Azkue:  
'Euskal Kultura  
Zumaian'

## Martxoak 12

Belen Uranga eta  
Iñaki Martinez de Luna:  
'Diskurtso berri baten beharra'



# OTSAILA ETA MARTXOA

## DEIALDIAK

### Otsailak 1-2

Oxford aretoan Bigarren  
Eskuko Azoka

### Otsailak 19, otsailak 26, martxoak 5 eta martxoak 12

Euskara, bestela ez gara hitzaldi zikloa.

### Gizarte Zerbitzuek antolatuta

Brankan, 943-862200  
Guraso Eskola

### Otsailak 3, 10, 17, 24 - Martxoak 17, 31

Adingabeak dituzten  
familiarentzat lantalde saioak

### Martxoak 10, 24

Adineko ezinduek zaintzen  
dituzten familiarentzat Laguntza Taldea

### Otsailak 13, 27- Martxoak 13, 27

### Martxoak 19-21

MENDIASTE: Mendiko  
proiektzioak Oxford aretoan

### Otsailak 29-martxoak 3

INAUTERIAK 2014 (Ikusi  
egitaraua)

### Martxoak 21-23

Musika egitaraua: METAL  
TOPAKETAK

## ERAKUSKETAK

OXFORD aretoan

### Otsailaren 3tik

**16ra DARAHLI**  
elkartearen erakusketa:  
"DESAGERTUAK" Gervasio  
Sánchez argazki-kazetariaren  
bilduma.

### Otsailaren 18tik

**martxoaren 2ra**  
INAUTERIETAKO KARTEL  
LEHIAKETA

### Martxoaren 5etik 16ra

MALEN ETXEA elkartearen  
erakusketa: "Diruaren sexu  
ezkutua"

## OTSAILA

### 2, igandea

10:30ean hasita, III.Txakur  
lasterketa: 10:30ean herrikoia  
eta 11:00etan lehiaketa  
nagusia.

### 5, asteazkena

17:30ean Haur liburutegian

ipuin kontaketa Apikaren  
eskutik "Mozorro jaia"

### 6, osteguna

22:00etan Aita Marin, zine  
forum: "Emak Bakia"

### 8, larunbata

19:00etan Oxford aretoan,  
hitzaldia: "Darahli Saharatik  
kanpo". Darahli elkarteko  
gazteen bizipenak Etiopia,  
Ekuador, Nikaragua, India eta  
Mexikon.

### 14, ostirala

19:30ean Foronda kultur  
etxean, GUNE Elkartearen  
otoitz-meditazio saioa

### 9, igandea

12:00 haur antzerkia Aita Marin  
"Babia"

### 14, ostirala

22:00etan Aita Mari aretoan  
antzerkia: TXALO taldearen  
"Ondoko hiliboko tipoa"

### 15, larunbata

15:00etan hasita, XXX. Herri  
lasterketa: 15:00etan haurren  
lasterketak. 15:45ean: lerroko  
patinak. 17:00etan: 5,600 km  
eta 10,200 km-ko lasterketak.

### 16, igandea

Ludotekaren Familia irteera:  
Tolosako Topic museora.

### 20, osteguna

22:00etan Aita Marin, zine  
forum: "Paraiso: Fe"

### 22, larunbata

09:30ean, txirindulari proba.

### 28, ostirala

19:30ean Foronda kultur  
etxean, GUNE Elkartearen  
solasaldia: "Derechos  
humanos, de los animales y  
de todos los seres"

## MARTXOA

### 1, larunbata

Egunean zehar, Inauteri  
egitaraua: musika, moztro  
lehiaketak...

### 3, astelehena

15:00etan eta 17:30ean Maria  
eta Jose ikastetxean, Pirritx,  
Porrotx eta Marimotots  
"Bizipoza"

18:00etatik 20:00etara LH4-  
6bitarteko haurrentzat  
inauteri festa Ludotekan

### 6, osteguna

22:00etan Aita Marin, zine  
forum: "Todas las mujeres"

### 7, ostirala

22:00 Aita Marin, antzerkia:  
KOLDARRAK taldearen  
"Izan bedi emakumea"

### 12, asteazkena

Haur Liburutegian  
Kontukantorekin ipuin  
kontaketa, 17:30ean

### 14, ostirala

19:30ean Foronda kultur  
etxean, GUNE Elkartearen  
otoitz-meditazio saioa

### 20, osteguna

22:00etan Aita Marin, zine  
forum: "Solo Dios perdona"

### 21, ostirala

22:00etan Aita Mari  
aretoan, antzerkia:  
METROKADROKA  
taldearen "Zertarako hegoak"

### 28, ostirala

19:30ean Foronda kultur  
etxean, GUNE Elkartearen  
solasaldia: "Biblia judeo-  
cristiana y espiritualidad  
ecológica".

**UROLA KOSTA**  
**LAN-POLTSA**  
ENPLEGATZE AGENTZIA 1600000046 zk.

**www.enplegua-urolakosta.org**  
**lan-poltsa on-line**  
Aia - Getaria - Orio - Zarautz - Zumaia

**LAN BILA BAZABILTZA:**

- Orientazioa
- Ikastaroak
- Enpresa sortzeko laguntza
- Enplegu Zentroa

**LAN-POLTSA INTERNETEZ, on-line**

- Eman izena
- Ikusi lan-eskaintzak
- Eman izena lan eskaintzetan

# Eskua goian

Doinua: "Agur sagar beltzaran"



1.

**T**ratu txarren ataka  
oso da estua  
orain arrotza duzu  
lehen mutil prestua  
agintea jartzeko  
goian du eskua  
harremanen gidoia  
ez da amestua  
film txar bat bihurtzen da  
minez antzeztua

2.

**D**ena dago josita  
gezurrezko printzez  
min eman dezakete  
baita ere hitzez  
eta begiak busti  
nahi gabeko ihintzez  
bizimodua bete  
daiteke baldintzez  
batek bestea bortxaz  
lotzen badu iltzez

3.

**B**erak esaten du noiz  
jar zaitezkeen guapa  
kontrolatu nahi dizu  
sarritan whatsapp  
ez du nahi lagun mina  
nahi du azafata  
hobe duzu alde egin  
hortik aterata  
askatasun pixka bat  
ere behar da-ta

4.

**E**rrespetua denez  
bizitzan zutabe  
urak ez daudenean  
behar bezain bare  
izan bedi nor bere  
buruaren jabe  
mendekuak utzita  
mendekorik gabe  
ondokoa tratatu  
beti parez pare

# MATRIKULA

## otsailaren 3tik 14ra

- ✓ **Haur Hezkuntza**
- ✓ **Lehen Hezkuntza**
- 2 urtetik 12 urte arte**

**HH-LH**  
ATE IREKIAK  
otsailak **8**

### ZUMAIKO HERRI ESKOLA

Aita Mari, 44,  
Sagarbidea, 1  
tel. 943 86 10 37; faxa: 943 86 25 01  
e-posta: 012972aa@hezkuntza.net  
webgunea: zumaialhi.hezkuntza.net

#### INSTALAZIOAK:

- Elbarrituentzat egokituak
- Psikomotrizitate gela
- Liburutegiak
- Laborategiak
- Irratia
- Informatika Gelak
- Teknologia tailerrak
- Gimnasioa / Frontoia

#### ZERBITZUAK - EKINTZAK:

- Jantokia
- Garraioa
- Zaintza (7:30-9:00)
- PROA (Errefortzu programa arratsaldean)
- HOBETUZ ikastaroak
- Erasmus +
- Aldizkaria

#### ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK:

- Brain Gym
- Hezkuntza psikomotrizitatea
- Jolasten ikasi
- Kirola
- Mekanografia

- ✓ **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza**
- ✓ **Z.I.G. / A.A.T.**  
(Zereginen Ikaskuntzen gela)
- ✓ **Batxilergoak**
  - Giza eta Gizarte Zientziak
  - Zientzia eta Teknologia
- ✓ **Heziketa Zikloa**
  - Administrazioa eta Finantzak  
(Goi Mailakoa)

### ZUMAIKO INSTITUTUA

Aita Mari auzategia, 45  
Sagarbidea, 1  
tel. 943 86 08 09 / 943 86 23 20  
faxes: 943 86 08 10  
e-posta: zumaiabhi@gmail.com  
webgunea: zumaiabhi.hezkuntza.net



# Zumaian bizi

RESIDENCIAL

## Ortiz

BIZIGUNEA

 facebook.com/inmoloiola

aukeratu etxebizitzarik egokiena



**ETXEBIZITZAK 170.000 €**  
-tik aurrera



**AUKERA**

Eta orain,  
Zure tamainako  
finantziazioa

inmo  
oiola



info@inmoloiola.com

# 606 957 532

[www.vivirenzumaia.com](http://www.vivirenzumaia.com) / [www.zumaianbizi.com](http://www.zumaianbizi.com)